



**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.
Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2,5 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderari:

ENPRESA BATEN SORRERA

Bere jarduera hasten duen **enpresa** batek berrikuntza izan behar du hasieratik bere arrakastarako itxaropenaren ardatza. Horretan oinarritu behar ditu bere lehiakideekiko abantailak, era argi eta defendagarrian, lehen urteetako ahultasunak konpentsatzeko moduan.

Hala ere, zailtasunak beti izango dira espero zirenak baino handiagoak, nekez ezagutuko baita **merkatua** behar bezain ondo eta proiektua egiten denetik gauzatu arte pasatutako denboran baldintzak aldatu egiten baitira. Zerbait eskaintzeko izatea, merkatuaren arreta lortzea eta fase batetik bestera emateko urratsak **finantzatzea**: horiek dira ibili beharreko gurutze-bidearen adierazgarriak.

Ohikoa izan ohi da enpresa guztietan, enpresa handietan eta eskarmentudunen artean ere, kapital zirkulatzaileraren beharra gutxiestea. Inbertsio finkoari arreta berezia ipintzen zaio, baina, askotan, zirkulatzailerako beharra berdina edo handiagoa izaten da. Gainera, negozio baten hasiera-fasean, **pasibo zirkulatzailera** txikia izaten da; hornitzaileek mesfidantza izaten dute, ez baitute enpresa berriaren ez historial ez bermerik.

Lehen fasea gaindituz gero, dena errazagoa da: enpresa indartsuagoa da, **bezeroek** ezagutzen dute, **hornitzaileek** beren eskaintzak eta **kreditua** hobetzen dituzte, finantza-erakundeek konfiantza erakusten dute, eta enpresa bera, hautespen gogor baten ondorioa denez, borrokarako gaitasuna erakutsi duen erakundea bilakatu da.

Galderak:

- Defini itzazu letra larriz nabarmenduriko hitzak.
- Azaldu itzazu enpresek "baliabide propioekin finantzatzeko" dituzten moduak.

A2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2,5 puntu.

Gazte bat aztertzen ari da taxilari-plaza bat erostea eta desgaitasun fisikoa dutenentzako garraio-zerbitzua eskaintzea. Horretarako, bi aukera ditu: furgoneta bat erosi (A aukera) edo leasing-kontratua egin kontzesionarioarekin (B aukera). Duen informazioaren arabera egiten dituen aurreikuspenak hauek dira:

A aukera:

- Taxilari-plaza erosteko: 12.000 €
- Furgoneta egokituren kostua: 30.000 €. Hasieran, 20.000 € ordainduko lituzke, eta gainerakoa 1. urtearen amaieran.
- Aseguru-poliza: 1.200 € urtean.



- Aurreikusten dituen zerbitzuen kilometroak hauek dira: 30.000 km lehenengo urtean, 40.000 km bigarrean eta 50.000 km hirugarrean.
- Aurreikusten duen kostua (mantenua, gasolioa): 8 €/km lehenengo urtean, eta 9 €/km bigarren eta hirugarrean.
- Zerbitzuen prezioa lehenengo urtean: 12 €/km; bigarrean: 12,5 €/km; eta hirugarrean 13 €/km.
- Hirugarren urtean, furgoneta 8.000 €-an salduko luke.

B aukera:

- Taxilari-plaza erosteko: 12.000 €
- Furgonetaren leasing-kostua: 5.000 € lehenengo urtean, 3.900 € bigarrean eta 3.000 € hirugarrean.
- Aseguru-poliza 1.200€ urtean.
- Aurreikusten dituen zerbitzuen kilometroak hauek dira: 30.000 km lehenengo urtean, 40.000 km bigarrean eta 50.000 km hirugarrean.
- Aurreikusten duen kostua (mantenua, gasolioa): 8€/km lehenengo urtean, eta 9 €/km bigarren eta hirugarrean.
- Zerbitzuen lehenengo urtean: 12 €/km; bigarrean; 12,5 €/km; eta hirugarrean 13 €/km.

Gazteak bere inbertsioari eskatzen dion gutxieneko errendimendua, inflaziorik gabe, % 8 da, eta espero du inflazio-tasa metatua % 2 izatea. Kalkula ezazu hau:

- a) Zein da inbertsiorik errentagarriena, haietako bakoitzaren Balio Eguneratu Garbiaren arabera? Arrazoitu erantzuna.
- b) Errentagarriak dira bi inbertsioak? Arrazoitu erantzuna.
- c) Egokia da BEGaren irizpidea (BEG, balio erantsi garbia) inbertsioen artean aukeratzeko? Zergatik?

A3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

IBILI SA enpresak zapatak ekoizten ditu, eta zapaten lokarriak kanpoko enpresa bati erosten dizkio, unitate bakoitza 2,1 euroan. Duela gutxi, lokarriak enpresan bertan egin ahal izateko makina bat eskaini diote, 12.000 euroko prezioan. Makina hori erabiliz, lokarri bakoitza 0,6 euroko kostu aldakorrarekin egin ahal izango luke.

1. Kalkula ezazu zenbat lokarri beharko lukeen IBILI SA enpresak lokarriak egiteko makina erosi eta enpresan bertan ekoiztea merkeagoa izateko.
2. Egin ezazu adierazpen grafikoa.
3. Enpresak 7.600 lokarri beharko balitu, gehienez zer prezio ordaindu behar luke makinarengatik, makina erosi eta lokarriak enpresan bertan egitea errentagarriagoa izan dadin?



A4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

Euskal Herriko herri bateko udal-barrutian, edari freskagarriak botilaratzeko bi lantegi daude. Enpresa bietan, sektore horretako hitzarmen kolektiboa aplikatzen da; ondorioz, urtean 320 egunetan lan egitea dagokie.

Bigarren lantegian, LUZURISAn, urtero 90 milioi edari freskagarri botilaratzen dituzte. Lehenengoan, KOZEGASAn, langileko eta eguneko 25.000 botilako produktibitatea dute. LUZURISAn duten produktibitatea KOZEGASA baino %25 handiagoa da.

Kalkula ezazu zein den KOZEGASAn urteko produkzioa, LUZURISAn baino langile bat gehiago erabiltzen badu.

A5. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 1 puntu

Definitu edo azaldu ezazu termino hauek:

- Defizit publikoa. Aipatu defizit publikoa finantzatzeko bideren bat.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ).

2016



B AUKERA

B1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

GURE IZOZKIAK SA enpresa industrialak izozkiak ekoizten ditu. Iaz, izozkiak egiteko erosi eta kontsumitu zituen lehengaien balioa 43.500 € izan zen (erosketa-prezioan baloratuta), eta biltegian batez beste dauzkan lehengaiak 3.625 € balio dute (erosketa-prezioan).

Urteko salmentak (salmenta-prezioan baloraturik), 140.000 € izan ziren, eta enpresaren bezeroek, batez beste, 28.000 €-ko zorra mantendu zuten enpresarekiko.

Gainera, hauek dira enpresaren beste datu batzuk, denak kostuaren arabera baloraturik:

- Urteko ekoizpenaren kostua: 48.800 €
- Urteko salmentak: 103.000 €
- Hornitzaileekiko batez besteko zorra: 7.250 €
- Enpresak lehengaiak kreditu bidez erosten ditu beti, eta biltegian eduki diren produktu bukatuen batez besteko balioa 12.875 € izan zen.
- Ekoizpen bidean dauden produktuen batez besteko balioa: 6.100 €

Kalkula ezazu:

- a) Batez besteko heltze-aro ekonomikoa eta azaldu emaitza.
- b) Batez besteko heltze-aro finantzarioa eta azaldu emaitza.

B2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

MARK.ONE enpresak margolanei jartzeko markoak ekoizten ditu. ENBOR enpresari erosten dizkio markoak egiteko zurezko listoiak; ENBORek, eskaera jasotzen duenetik, 5 egun behar ditu listoiak emateko.

Listoien segurtasun-stocka 10 metro da. ENBOR enpresari eskaera egiten dion bakoitzean, 200 metro eskatzen dizkio. Astean, 49 metro erabiltzen ditu margolan-markoak egiteko.

Datu horiekin, kalkula ezazu:

- a) Eskaera-puntua
- b) Batez besteko stock-maila
- c) Errotazio-indizea
- d) Egin ezazu egoeraren irudikapen grafikoa
- e) Zer gertatuko litzateke baldin eta ENBOR enpresak, greba baten ondorioz, 5 egun erabili beharrean 7 egun behar balitu listoiak entregatzeko?



B3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 4,5 puntu.

ASPE SL enpresak ispiluak ekoizten eta saltzen ditu. Ondare-elementu hauek ditu 2015. urtearen bukaeran:

1. Altzariak.....	2.700 €
2. Altzariengatik 6 hilabete barru ordaindu beharrekoa	2.700 €
3. Lurrak eta ondasun naturalak	31.300 €
4. Makinak	17.000 €
5. Lantegiaren lokala	135.600 €
6. Biltegian dituen ispiluak	13.600 €
7. Biltegian dituen ispiluak egiteko lehengaiak	3.400 €
8. Hornitzaileei erosketengatik ordaindu behar dizkien fakturak.....	23.000 €
9. Ispiluen salmentagatik kobratzeko dituen fakturak	22.500 €
10. Ordenagailua eta inprimagailua.....	3.800 €
11. Bankuan daukan dirua.....	29.000 €
12. Enpresako kutxan daukan dirua	2.000 €
13. Kreditu-erakunde bati 4 urteren ondoren itzuli beharreko mailegua .	28.700 €
14. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua.....	20.400 €
15. Ogasunari BEZagatik zor dio.....	8.500 €
16. Ekitaldiko emaitza.....	24.000 €
17. Erreserbak.....	9.500 €
18. Kapital soziala	?????

Eskatzen da:

- Enpresaren balantzea egitea, ondare-masatan sailkatua.
- Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko, eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua.
 - Altxortegia.
 - Likidezia.
 - Finantza-autonomia.
 - Zorpetze osoa.

B4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu.

Edorta Morgado jaunak 300 akzio erosi zituen, akzioko 8,5 € ordainduta. Ekainean, dibidendu gisa, akzio bakoitzeko 0,5 euro jaso zuen. Azaroan, 300 akzioak saldu zituen akzioko 10 €-an.

- Zer errenta sortu dute akzioek?
- Zein izan da akzioen errentagarritasuna?
- Azaldu ezazu zer den akzioa.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ENPRESAREN EKONOMIA

Ikasleari ariketa bakoitzean bi aukera ematen zaizkio, A eta B. Bi aukerek 4 edo 5 galdera dituzte. Galderak balioesteko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAn ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute zuzentzaileek.

A AUKERA

Bi aukeretan lehenak ekonomiako dibulgazio-testu bat du, komunikabide sozialetatik jasotakoa, eta edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea eskatzen da. Galderetan, termino batzuen esanahia aurkeztutako testuaren testuinguruan azaltzea eskatzen da, edo, bestela, testuari lotutako argudio ekonomikoren bat azaltzea. Galdera honek 2 puntu edo **2,5 puntu** balio du, gehienez, goiburuan adierazitakoaren arabera. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Lehen aukerak beste hiru galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarrizko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera. Teknika egokiak menderatzea nahiz lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko da.

Azkenik, lehen aukeran baliteke galdera bat egotea ekonomia-terminoen ezagutza eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzeko. Galdera horrek **1,5 puntu** balio du, gehienez. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

B AUKERA

Bigarren aukerak balantze-analisi bat du. Galdera honek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea, eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desorekak eta desdoitzeak gertatuko balira hautemateko gai izatea. Batez ere, ikaslea emaitzen esanahi ekonomikoa ulertzeko eta interpretatzeko gai izatea balioetsiko da. Akats aritmetikoen kasuan, lehentasuna eman behar zaio ikaslearen arrazoibidearen ebaluazioari, eta ez zenbakizko emaitzaren zuzentasunari.

Bigarren aukerak beste bi galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarrizko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, bigarren aukerako galdera batean, ekonomia-terminoak ezagutzea eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Galdera horrek gehienez **1,5 puntuko** balorazioa du. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratze-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie haiei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehienezko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoaren analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoaren arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.